

## **IN MEMORIAM: XABIER AURREKOETXEA**



Maiz-sarri hitzak eurak ere ez dira aski izaten barruan ditugunak adierazteko, batik bat, adiskide maite-maitea ustekabean hiltzen zaigunean. Izan ere, oraingo hau gertaera mingarri horietatik bat da. Xabier Aurrekoetxea Aurrekoetxea (Bilbo, 1965. urteko uztailaren 7an / Gorniz, 2007. urteko irailaren 13an), Euskal Zuzenbidearen Akademiako kide eragilea eta laguntzailea

berrikitan zendu da. Hura zen euskal foru zuzenbidearekin konpromiso handiko jurista; hura zen arlo horretan aditua eta zale-tua, hala erakutsita hamaikatxo biltzar, bilera, jardunaldi, kongre-su eta gainerakoetan, nola, hur-hurrekoa genuenen artean, txoko bateko mahainguru atseginean.

Gure zuzenbidearen inguruko lanak Akademiara ez ezik, Deustuko Unibertsitatera eta Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkune Ohoretsuaren barruko foru-zuzenbidea aztertzeko talde-  
ra ere eraman zituen, lerro hauen egilearekin batera sortu zuela delako talde hori.

1995. urtean ezagutu nuen Xabier, Deustuko Unibertsitateak antolaturiko Euskal Herriko Foru Zuzenbide eta Zuzenbide Autonomikoaren Masterraren lehen promozioan. Xabier zen masterreko koordinatzailea, eta biok foru-zuzenbide-arekin genuen jakin-min berberak ekarri zuen, gerora ere, gure bizitzak batera ibiltzea, akademia-gaietan zein adiskidantza-kon-tuetan.

Deustuko Unibertsitatean parte hartu zuen, Itziar Monasterio Azpiri doktorearen zuzendaritzapean, "Jurisprudentzia Zibil Foralaren Bilduma" delakoaren liburuki batzuetan. Halaber, Abokatuen Bazkunean lan ikaragarria egin zuen foru-zuzenbide zibila aztertzeko taldean, jardunaldi ugarietan parte hartuz.

Bide beretik, beste autonomia-erkidego batzuetan antola-turiko kongresuetan ere parte hartu zuen, gure zuzenbide zibila-ren ezaugarriak zabal eta luze azalduz. Bestalde, Euskal Zuzenbidearen Akademian, Zuzenbide Pribatuaren Ataleko idaz-karia izan zen.

Lan horren emaitza sendoak dira bere artikulua, txosten, komunikazioak eta abarrekoak, egunen batean bildu beharko direnak. Horixe da gure lankideari egin diezaiokegun omenaldi-rik zintzoena, berak ere horixe nahiko zuelako, hain zuzen ere, berak jorratutakoa oinarri izatea bihar-etziko gogoeta eta asmo-e-tarako.

Goian bego Xabier Aurrekoetxea adixkide mina. Ezagutu zintugunok zeure hutsunea nabarituko dugu gure artean. Hutsune zabalagoa, zalantzarik gabe, euskal foru-zuzenbidearen arloan sumatuko dena. Hori betetzen saiatuko gara, Xabier, zeure eta geure herriaren izenean.

Egun handia arte, Xabier!

***Tatiana G. San Sebastián***